## IRURAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2012ko otsailaren 28an egindako batzarrean, behin betiko onespena eman dio Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal-ordenantzaren aldaketari, (Euskara arloko diru-laguntzak).

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantzaren aldaketa argitaratzen da.

Erabaki hau behin betikoa da eta aqdministrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Irura, 2012ko martxoaren 22a.—Alkatea.

(152) (2886)

### DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA

Irurako Udaleko aurrekontuetan, dagokien gastuen kredituetan aurreikusita daude zenbait jarduera eta sustapenerako ematen diren diru-laguntzetarako partidak.

Udal-ordenantza honen eta bere eranskinen bidez lortu nahi dena diru-laguntzak arautzea da, aurten eta ondorengo urteetan.

Diru-laguntza guztiak ordenantza bakar baten bidez arautzeko arrazoia hau da: Laguntza hori jasotzen dutenek erreferentzia bakarra izatea eta espediente guztiak bideratzeko administrazio-kudeaketa erraztea.

Horiek horrela,

HAUXE XEDATU DA

*1. artikulua. Diru-laguntza motak.*

Onartzen dira departamentu bakoitzak kudeatuko dituen programen kontura emango diren diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzen dira. Oinarri hauek eranskin moduan doaz, jarraian agertzen den zerrendaren arabera:

1. Familia ugarientzako diru-laguntzak emateko oinarriak. (I. eranskina).

2. Euskara ikasteko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak. (II. eranskina).

3. UEU eta UPVko udako euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak emateko oinarriak (III. eranskina).

4. Ezgaitasuna dutenei udalak antolatutako ekintzetarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak (IV. eranskina).

5. Udal-zergak ordaintzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak (V. eranskina).

*2. artikulua. Deialdia.*

Diru-laguntza horiek emateko deialdi publikoa egingo da urtero, eta bertan finkatuko da udal-aurrekontuan baimendutako gastua.

*3. artikulua. Onuradunak.*

Diru-laguntzen onuradun izango dira diru publikoa jasoko duten pertsona fisiko edo juridikoak, diru-laguntza horiei lotutako jarduerak egingo dituztenak edo diru-laguntza jaso izana legitimatzen duen egoeraren batean daudenak.

## AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Anuncio*

La Corporación en sesión celebrada el día 28 de febrero de 2012 ha aprobado definitivamente la Modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de Otorgamiento de Ayudas Económicas (Subvenciones en el área de euskara).

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar se publicación o, en su caso, notificación.

Irura, a 22 de marzo de 2012.—La alcaldesa.

(152) (2886)

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE OTORGAMIENTO DE AYUDAS ECONÓMICAS

Los Presupuestos del Ayuntamiento de Irura contemplan entre los créditos de gasto correspondientes, partidas presupuestarias para la concesión de subvenciones y ayudas destinadas a diferentes actividades y promociones.

Lo establecido por la presente Ordenanza municipal y por sus anexos persigue la regulación de las subvenciones y ayudas indicadas, en el presente y en sucesivos ejercicios.

Las razones que justifican la inclusión en una única ordenanza de todas las líneas de subvención, estriban, sobre todo, en procurar a los destinatarios de las ayudas económicas una única referencia normativa, y en facilitar las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de expedientes.

En su virtud,

SE DISPONE

*Artículo 1. Tipos de ayudas.*

Se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas económicas con cargo a programas gestionados por los distintos departamentos, que se adjuntan como anexos a las presentes bases reguladoras, con arreglo a la siguiente relación:

1. Bases de subvención destinadas a familias numerosas (Anexo I).

2. Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para aprender euskera (Anexo II).

3. Bases de subvención destinadas a cursos de verano en euskera de la UEU y UPV (Anexo III).

4. Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para personas con discapacidad en actividades organizadas por el Ayuntamiento (Anexo IV).

5. Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para pagar impuestos municipales (Anexo V).

*Artículo 2. Convocatoria.*

Para el otorgamiento de estas ayudas económicas se realizará anualmente una convocatoria pública, en la que se fijará el gasto autorizado en el presupuesto municipal.

*Artículo 3. Personas beneficiarias.*

Tendrá la condición de persona beneficiaria de la subvención la persona física o jurídica destinataria de los fondos públicos, que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima la concesión de la subvención.

Onuradun izateko, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dira, bereziki, zerga-betebeharrak egunean izatea udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

*4. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Laguntza horiek jasotzen dituztenek diru-laguntzen prozeduran ezarritako betebeharrak izango dituzte, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan izaera orokorrez xedatutakoez gain.

*5. artikulua. Agiriak aurkeztea.*

1. Ordenantza honetan araututako laguntzak eskatzeko dokumentazioa eta argibideak Irurako udaletxeko bulego orokorrean jaso ahal izango dira. Jarraian doa kasu guztietan aurkeztu behar den dokumentazioa:

a) Araututako diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta (VI. eranskina).

b) 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen deklarazioa behar bezala beteta (VII. eranskina).

c) Nortasunaren egiaztagiria.

d) Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

e) Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kasuan kasuko gastua egin dela egiaztatzen duena.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen agiria.

2. Hauetaz gain, eranskin moduan doazen oinarrietan zehaztuta datoz programa bakoitzaren kontura emango diren diru-laguntzak eskatzeko aurkeztu behar diren gainerako dokumentuak.

3. Eskatutako agiri batzuk deialdia egin duen administrazioko organoetakoren baten esku baleude, eskatzaileak Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 35 artikuluko f) atalak dioenaren arabera joka dezake, beti ere noiz eta zein organotan aurkeztu ziren edota jaso ziren zehaztuta, baldin eta bere prozedura amaitu zenetik bost urte igaro ez badira.

4. Dokumentazioa eskuratzea ezinezkoa balitz, organo eskudunak dokumentazio hori aurkeztea eskatu ahal izango du, edo bestela, dokumentuan ezartzen diren baldintza horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzea eskatu ahal izango du, ebazpen-proposamena egin aurretik.

5. Eskaerak Irurako udaletxeko bulego orokorrean aurkeztuko dira.

6. Ikusiko balitz aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan exijitutakoak betetzen ez direla, hamar eguneko epearen barruan akats horiek zuzentzea edo beharrezko agiriak aurkeztea eskatuko zaio interesatuari, horrela egin ezean, eskaera hori baztertu egingo dela ohartaraziz.

7. Dena dela, jarduera horri buruzko dokumentazioaz gain, udalak horren balorazioa egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskaera egin duten pertsona fisikoei.

*6. artikulua. Deialdiak.*

Programa bakoitzerako diru-laguntza eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

Para obtener la condición de beneficiario se deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en especial, estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias municipales y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 4. Obligaciones.*

Serán obligaciones de quienes se beneficien de las ayudas, las establecidas en el procedimiento de concesión de subvenciones y ayudas, además de las señaladas con carácter general en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Artículo 5. Documentación a presentar.*

1. Quienes soliciten las ayudas reguladas en la presente Ordenanza podrán obtener la documentación y la información en las oficinas generales del Ayuntamiento de Irura. Se presentará, con carácter general, la siguiente documentación:

a) Solicitud de subvención normalizada, debidamente cumplimentada (Anexo VI).

b) Declaración de cumplimiento de las condiciones señaladas en el artículo 3, debidamente cumplimentada (Anexo VII).

c) Documento acreditativo de la personalidad.

d) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre.

e) Documento acreditativo o resguardo de la entidad bancaria o de ahorro indicando el gasto realizado en cada caso.

f) Documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones tributarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. La documentación restante que no sea de carácter general y que corresponda a cada programa específico, vendrá detallada en los anexos correspondientes.

3. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano de la Administración actuante, quien solicite podrá acogerse a lo establecido en el apartado f) del artículo 35 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, siempre que se haga constar la fecha y el órgano en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

4. En los supuestos de imposibilidad material de obtener el documento, el órgano competente podrá requerir su presentación, o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento, con anterioridad a la formulación de la propuesta de resolución.

5. Las solicitudes deberán presentarse en las oficinas generales del Ayuntamiento de Irura.

6. Cuando se comprobara que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos por las presentes bases, se requerirá para que en un plazo de diez días se subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se tendrá por desistida la petición, previa resolución.

7. En todo caso, además de la documentación relativa a la actividad contemplada, el ayuntamiento podrá requerir a las personas físicas solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de dicha actividad.

*Artículo 6. Convocatorias.*

Los plazos de presentación de solicitudes de las ayudas económicas para cada programa se concretarán en la convocatoria anual.

*7. artikulua. Ebazpenak.*

1. Diru-laguntza eskaerak dagokion departamentuak aztertu eta ebaluatuko ditu eta bere proposamena egingo dio organo eskudunari, ebazpena eman dezan.

2. Departamentu eta programa bakoitzean finkatutako irizpideen arabera emango dira diru-laguntzak.

3. Ebazpena baiezkoa izanez gero, bertan adieraziko dira laguntza hori jasoko dutenen izenak eta bakoitzari dagokion diru-laguntzaren kopurua. Guztiei emango zaie ebazpenaren berri eta esleipenen laburpena iragarki oholean argitaratuko da.

*8. artikulua. Jakinarazpenak.*

1. Ordenantza honekin batera doazen eranskinetan aipatzen diren diru-laguntzak emateko prozedura dela eta, gerta litezkeen presuntziozko egintzek ezetsitzat emango lukete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44 artikuluak xedatutakoaren arabera.

2. Gehienez ere, sei hilabeteko epean jakinaraziko da ebazpena.

3. Dena dela, ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea eten egingo da, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.5 artikuluan jasotako egoeretakoren bat gertatzen bada.

*9. artikulua. Diru-laguntzen kopuruak.*

Ordenantza honen bidez araututako diru-laguntzen kopuruek inolaz ere ezin izango dute gainditu egindako gastua.

*10. artikulua. Ordainketak.*

Oro har, eta dagokion eranskinean besterik ezarri ezean, Ordenantza honen bidez arautzen diren diru-laguntzak, beharrezko administrazio tramiteak egin ondoren, dagokion eranskinean adierazten den eran ordainduko dira.

*11. artikulua. Diru-laguntzak berrikustea.*

1. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan gerta litekeen gora-behera orok diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango du.

2. Jarraian aipatzen diren kasuetan diru-laguntza berrikusi edo deuseztatu ahal izango da:

a) Beharrezko baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzea.

b) Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.

*12. artikulua. Argibideak.*

Ordenantza honen bidez onartutako oinarriak ulertzerakoan zalantzarik sortuko balitz, Irurako Udaleko dagokion departamentuak argituko luke.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.*

Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost(15) eguneko epean.

Hortik aurrera, indargabetu egingo dira ordenantza honen edukiarekin kontrajartzen diren gainerako xedapen guztiak.

*Artículo 7. Resolución.*

1. Las solicitudes de subvención serán examinadas y evaluadas por el departamento correspondiente que emitirá propuesta de resolución acerca de las mismas, elevándola al órgano competente, para que dicte la resolución.

2. La concesión de la subvención se efectuará conforme a los criterios fijados en cada departamento o programa.

3. En la resolución, en caso de ser positiva, se hará constar beneficiarios y cuantías de las subvenciones. Se notificará el acto resolutorio a las personas interesadas y se publicará en el tablón de anuncios el extracto de las adjudicaciones.

*Artículo 8. Notificaciones.*

1. En relación con el procedimiento de concesión de subvenciones recogido en los anexos que acompañan a esta Ordenanza, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común.

2. El plazo máximo para notificar la resolución expresa será de seis meses.

3. En todo caso, el transcurso del plazo máximo para resolver y notificar quedará suspendido cuando se produzca alguna de las circunstancias que se recogen en el artículo 42.5 de la mencionada Ley 30/1992, de 26 noviembre.

*Artículo 9. Importes de las ayudas.*

Los importes de las ayudas reguladas en la presente Ordenanza en ningún caso podrán ser de tal cuantía que superen el coste de la actividad a desarrollar.

*Artículo 10. Abonos.*

Como norma general, y salvo que en el anexo respectivo se establezca alguna otra fórmula, las subvenciones reguladas por la presente Ordenanza se abonarán, previos los trámites administrativos oportunos, según se establezca en el respectivo anexo.

*Artículo 11. Revisión de la subvención.*

1. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

2. Procederá la revisión y, en su caso revocación de la subvención, en los siguientes supuestos:

a) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

b) Incumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

*Artículo 12. Aclaraciones.*

Cualquier duda que pueda surgir respecto a la interpretación de las bases aprobadas por la presente Ordenanza será resuelta por el departamento correspondiente, del Ayuntamiento de Irura.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.*

La presente ordenanza entrará en vigor a los quince (15) días de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

A partir de la citada fecha quedarán derogadas cuantas otras disposiciones municipales se opongan al contenido de esta ordenanza.

I. ERANSKINA

*Familia ugarientzako diru-laguntzak emateko oinarriak*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da, herriko familia ugariek udalarenak ez diren bertako zerbitzuen ordainketak egiteko udal diru-laguntzak arautzea (adibidez, haurtzaindegikoak, hainbat ikastarotakoak, e.a.).

*2. Onuradunak.*

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten familiek:

a) Familia ugaria izatea.

b) Eskatzailea Iruran erroldatuta egotea.

c) Interesatua izena emanda egotea eranskin honen 1. puntuan aipatutako zerbitzuren batean.

d) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak.

*3. Eskaera eta dokumentazioa.*

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.

b) Familia ugariaren titulu eguneratua.

c) Interesatua eranskin honen 1. puntuan aipatutako zerbitzuren batean izena emanda dagoela egiaztatuko duen agiria.

*4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.*

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*5. Onartuko ez direnak.*

a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.

b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

*6. Ebaluaketa eta onarpena.*

Eskaerak dagokion Departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

*7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, izandako gastuaren %25 ordainduko zaio eskatzaileari.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du familia ugarientzako diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guziei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

II. ERANSKINA

*Euskara ikasteko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Irurako Udalak euskararen ezagutza sustatzeko udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea.

*2. Onuradunak.*

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarrek. Ikastaroak trinkoak, arinak, luzeak nahiz motzak izan daitezke.

ANEXO I

*Bases de subvención destinadas a familias numerosas*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de ayudas económicas destinadas a familias numerosas con el fin de cubrir gastos originados por servicios no municipales (guardería, cursillos, etc.).

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las familias que cumplan con los siguientes requisitos:

a) Ser familia numerosa.

b) Que la persona solicitante esté empadronada en Irura.

c) Que la persona solicitante esté inscrita en cualquiera de los servicios citados en el punto 1 de este anexo.

d) Los señalados en el artículo 3 de la Ordenanza General.

*3. Presentación de solicitudes y documentación.*

a) Documentación general detallada en el artículo 5 de la Ordenanza Municipal reguladora de otorgamiento de ayudas económicas.

b) Título actualizado de Familia Numerosa.

c) Documento acreditativo de inscripción en cualquiera de los servicios citados en el punto 1 de este anexo.

*4. Plazo.*

El plazo para presentar las solicitudes y la correspondiente documentación se detallará en la convocatoria anual.

*5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes que se presenten fuera de plazo.

b) Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 3 de este anexo.

*6. Evaluación y concesión.*

Las solicitudes serán examinadas por el correspondiente Departamento, elevando propuesta de concesión para su resolución.

*7. Cuantía y abono de la subvención.*

El abono de la subvención se realizará al adoptar el órgano correspondiente la resolución, siendo la cuantía del 25% del gasto realizado.

El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida destinada a subvencionar a las familias numerosas. Si en dicha partida presupuestaria no hubiera suficiente consignación para hacer frente a todas las solicitudes, las cantidades a percibir disminuirían en la correspondiente proporción.

ANEXO II

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para aprender euskera.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión por parte del Ayuntamiento de Irura de ayudas económicas destinadas a fomentar el conocimiento del euskera.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las personas que vayan a aprender euskera a internados o a euskaltegis. Los cursos podrán ser normales o intensivos, de larga o corta duración.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskatzailea Iruran erroldatuta egotea.

b) Ikastaroa amaitzea.

c) Ikastaroa ongi aprobetxatzea eta gutxieneko asistentzia izatea (ikus eranskin honen 7. puntua).

d) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

*3. Eskaera eta dokumentazioa.*

Interesatuek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.

b) Euskaltegiak emandako ziurtagiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko dute ikasleak ikasturtea ongi aprobetxatu duen ala ez (hasierako maila eta amaieran gainditu duen maila) eta ikasleak urtean zehar izan duen asistentzia maila. Agiri hau ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da.

c) Lanbideren izen-ematearen aldiei buruzko txostena edo pentsiodunen agiria, hala badagokio. Agiri hau ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da.

*4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.*

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian (irail edo urrian) zehaztuko dira.

*5. Onartuko ez direnak.*

a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.

b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

*6. Ebaluaketa eta onarpena.*

Eskaerak euskara departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

*7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, ordainketa honela egingo da:

Langabetu edo jubilatuak.

Matrikula-kopuruaren %100.

— Gutxieneko asistentzia %90ekoa eta aprobetxamendu ona izan badu.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Matrikula-kopuruaren %50.

— Gutxieneko asistentzia %75-90 artekoa, baina aprobetxamendu ona izan badu.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Lanean ari direnak.

Matrikula-kopuruaren %80.

— Gutxieneko asistentzia %85ekoa eta aprobetxamendu ona izan badu.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Matrikula-kopuruaren %40

— Gutxieneko asistentzia %70-85 artekoa, baina aprobetxamendu ona izan badu.

Para poder acceder a dichas ayudas se deberá cumplir con los siguientes requisitos:

a) Que la persona solicitante esté empadronada en Irura.

b) Que haya finalizado el curso.

c) Que haya aprovechado bien el curso y tenga un mínimo de asistencia (ver punto 7 del anexo).

d) Los señalados en el artículo 3 de la Ordenanza General.

*3. Presentación de solicitudes y documentación.*

Las personas interesadas deberán presentar la siguiente documentación:

a) Documentación general detallada en el artículo 5 de la Ordenanza Municipal reguladora de otorgamiento de ayudas económicas.

b) Certificado emitido por el euskaltegi en el que se indicarán: Aprovechamiento del curso (nivel en el que ha comenzado el curso y nivel superado al final del curso) y nivel de asistencia durante el curso. Este certificado se presentará al finalizar el curso.

c) Informe de períodos de inscripción expedido por Lanbide o informe de pensionista, si procede. Este certificado se presentará al finalizar el curso.

*4. Plazo.*

El plazo para presentar las solicitudes y la correspondiente documentación se detallará en la convocatoria anual (en setiembre u octubre).

*5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes que se presenten fuera de plazo.

b) Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 2 de este anexo.

*6. Evaluación y concesión.*

Las solicitudes serán examinadas por el departamento de euskera, elevando propuesta de concesión para su resolución.

*7. Cuantía y abono de la subvención.*

Una vez resuelta la concesión por el órgano correspondiente, las ayudas se abonarán de la siguiente manera:

Personas paradas o jubiladas.

100% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es del 90% y ha aprovechado bien el curso.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

50% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es entre el 75-90%, pero ha aprovechado bien el curso.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

Personas que estén trabajando.

80% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es del 85% y ha aprovechado bien el curso.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

40% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es entre el 70-85%, pero ha aprovechado bien el curso.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Ikasleak ez du diru-laguntzarik jasoko ez badu ikasturtea behar bezala aprobetxatu.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du euskara ikastea sustatzeko diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

III. ERANSKINA

*UEU eta UPVko udako euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak emateko oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da Irurako Udalak euskararen sustapenerako emango dituen diru-laguntzak arautzea.

*2. Onuradunak.*

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituzten udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarrek.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskatzailea Iruran erroldatuta egotea.

b) Ikastaroa amaitzea.

c) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

*3. Eskaera eta dokumentazioa.*

Interesatuek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.

b) Dagokion Unibertsitateak emandako ziurtagiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko dute:

— Ikasleak egin d(it)uen ikastaroa(k).

— Ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua ikastaro bakoitzarengatik.

*4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.*

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*5. Onartuko ez direnak.*

a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.

b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

*6. Ebaluaketa eta onarpena.*

Eskaerak euskara departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

*7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, izandako matrikula-gastuaren %100 ordainduko zaio eskatzaileari, baina inoiz ez da diru-laguntza gai izango matrikula ez den beste gasturik.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

El alumno no podrá recibir ninguna subvención si el curso no ha sido debidamente aprovechado.

El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida destinada a fomentar el aprendizaje del euskera. Si en dicha partida presupuestaria no hubiera suficiente consignación para hacer frente a todas las solicitudes, las cantidades a percibir disminuirían en la correspondiente proporción.

ANEXO III

*Bases de subvención destinadas a cursos de verano en euskera de la UEU y la UPV.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión por parte del Ayuntamiento de Irura de ayudas económicas destinadas a fomentar el euskera.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las personas que se matriculen en los cursos de verano, impartidos en euskera, de la Universidad Vasca de Verano y de la Universidad del País Vasco.

Para poder acceder a dichas ayudas se deberá cumplir con los siguientes requisitos:

a) Que la persona solicitante esté empadronada en Irura.

b) Que haya finalizado el curso.

c) Los señalados en el artículo 3 de la Ordenanza General.

*3. Presentación de solicitudes y documentación.*

Las personas interesadas deberán presentar la siguiente documentación:

a) Documentación general detallada en el artículo 5 de la Ordenanza Municipal reguladora de otorgamiento de ayudas económicas.

b) Certificado emitido por la correspondiente Universidad en el que se indicarán:

— Curso(s) realizado(s) por la persona solicitante.

— Cantidad abonada por cada curso en concepto de matrícula.

*4. Plazo.*

El plazo para presentar las solicitudes y la correspondiente documentación se detallará en la convocatoria anual.

*5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes que se presenten fuera de plazo.

b) Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 2 de este anexo.

*6. Evaluación y concesión.*

Las solicitudes serán examinadas por el departamento de euskera, elevando propuesta de concesión para su resolución.

*7. Cuantía y abono de la subvención.*

El abono de la subvención se realizará al adoptar el órgano correspondiente la resolución, siendo la cuantía del 100% del gasto de la matrícula. No será objeto de subvención ningún otro gasto que no sea el de matriculación.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du ekimen hau sustatzeko diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

IV. ERANSKINA

*Ezgaitasuna dutenei udalak antolatutako ekintzetarako diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea, %50 baino gehiagoko ezgaitasuna duten herritarrek herrian antolatzen dituen ekintzetan parte-hartzea sustatzeko udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea da.

*2. Onuradunak.*

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Udalak herrian antolatzen dituen ekintza edo ikastaroetan parte hartzen duten eta ezgaitasuna izan eta lanbide-arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren diru-sarrerak dituzten herritarrek.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskatzailea Iruran erroldatuta egotea azkeneko 4 urteetan.

b) %50 edo gehiagoko ezgaitasuna izatea, baina ekintzan parte hartzeko gaitasuna izatea.

c) Bere diru-sarrerek Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata ez gainditzea (ekonomikoki bere kargu norbait balego, 2. kidearengatik LGSren %60 gehituko zaio, eta 3. edo gehiagorengatik %40).

d) Ekintza burutu izana.

e) Ekintza ongi aprobetxatzea eta gutxieneko asistentzia izatea (ikus eranskin honen 7. puntua).

f) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

*3. Eskaera eta dokumentazioa.*

Interesatuek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.

b) Irakasleak sinatutako agiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko du: Ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua eta ikaslearen asistentzia. Agiria hau ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da.

c) Interesatuaren diru-sarrerak adierazten dituzten agiriak (nominak, pentsioak, langabezia, zinpeko aitorpena).

*4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.*

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*5. Onartuko ez direnak.*

a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.

b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

*6. Ebaluaketa eta onarpena.*

Eskaerak gizarte zerbitzuetako departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida destinada a fomentar esta iniciativa. Si en dicha partida presupuestaria no hubiera suficiente consignación para hacer frente a todas las solicitudes, las cantidades a percibir disminuirían en la correspondiente proporción.

ANEXO IV

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para personas con discapacidad en actividades organizadas por el Ayuntamiento.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de ayudas económicas destinada a facilitar la participación de personas con una discapacidad mayor del 50% en actividades organizadas en el municipio por el Ayuntamiento.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las personas que posean una discapacidad con unos ingresos que no superen el salario mínimo interprofesional y participen en actividades o cursillos que el ayuntamiento organice en el municipio.

Para poder acceder a dichas ayudas se deberá cumplir con los siguientes requisitos:

a) Que la persona solicitante esté empadronada en Irura los últimos 4 años.

b) Que posea una discapacidad igual o superior al 50% pero que tenga capacidad para participar en la actividad.

c) Que sus ingresos no superen el salario mínimo interprofesional (si hubiera alguna persona que dependiera económicamente de la persona interesada, por la 2.ª se añadirá un 60% y un 40% por la 3.ª o más personas).

d) Que haya finalizado la actividad.

e) Que haya aprovechado bien la actividad y tenga un mínimo de asistencia (ver punto 7 del anexo).

f) Los señalados en el artículo 3 de la Ordenanza General.

*3. Presentación de solicitudes y documentación.*

Las personas interesadas deberán presentar la siguiente documentación:

a) Documentación general detallada en el artículo 5 de la Ordenanza Municipal reguladora de otorgamiento de ayudas económicas.

b) Certificado emitido por la persona responsable de la actividad en el que se indicarán: Cantidad abonada en concepto de matrícula, y nivel de asistencia durante el curso. Este certificado se presentará al finalizar la actividad.

c) Documentos que detallen los ingresos de la persona interesada (nóminas, pensiones, desempleo, declaración jurada).

*4. Plazo.*

El plazo para presentar las solicitudes y la correspondiente documentación se detallará en la convocatoria anual.

*5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes que se presenten fuera de plazo.

b) Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 2 de este anexo.

*6. Evaluación y concesión.*

Las solicitudes serán examinadas por el departamento de Servicios Sociales, elevando propuesta de concesión para su resolución.

*7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

Matrikula-kopuruaren %90:

— Gutxieneko asistentzia >%80.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Matrikula-kopuruaren %45:

— Gutxieneko asistentzia <%80.

— 2. puntuan adierazten diren baldintza guztiak betetzen baditu.

Ikasleak ez du diru-laguntzarik jasoko asistentzia %75 baino baxuagoa bada eta ez badu ikasturtea behar bezala aprobetxatu.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du ezgaitasuna dutenek udal-ekintzetan parte hartzea sustatzeko diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

V. ERANSKINA

*Udal-zergak ordaintzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea, ekonomikoki egoera okerragoan dauden irurarrei udal zergak ordaintzeko udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea da.

*2. Onuradunak.*

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute ekonomikoki ondorengo baremoan sartzen diren herritarrak: 7. puntuan zehatua.

Diru-sarrerak zenbatzerakoan kontuan izango ditu udalak urteko diru sarrera guztiak, ohiko etxebizitzaz gain egon daitezkeen ondasun higiezin eta higigarriak; elkarbizitza unitatean eskatzailearen aurreko eta ondorengo belaunaldirik balego (aitona-amonak eta seme-alabak), hauen diru-sarreren %50 hartuko du kontuan.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskatzailea Iruran erroldatuta egotea gutxienez urtebete.

b) Faktura eskatzailearen izenean egotea.

c) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

*3. Eskaera eta dokumentazioa.*

Interesatuek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.

b) Inskripzio-agiria, udalak ematen duena.

c) Bizikidetza unitatearen diru-sarrerak adierazten dituzten agiriak (nominak, pentsioak, langabezia, zinpeko aitorpena, informazio fiskala eta kontu-mugimenduak, hala badagokio).

*7. Cuantía y abono de la subvención.*

90% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es >80%.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

45% de la matrícula:

— Si su asistencia mínima es <80%.

— Si cumple con los requisitos señalados en el punto 2 del anexo.

El/la alumno/a no podrá recibir ninguna subvención si su asistencia mínima al curso es inferior al 75% y si el curso no ha sido debidamente aprovechado.

El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida destinada a fomentar la participación de personas con discapacidad en actividades organizadas por el Ayuntamiento. Si en dicha partida presupuestaria no hubiera suficiente consignación para hacer frente a todas las solicitudes, las cantidades a percibir disminuirían en la correspondiente proporción.

ANEXO V

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para abonar los impuestos municipales.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de ayudas económicas destinada a las personas de Irura más desfavorecidas económicamente para abonar los impuestos municipales.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las personas que cumplan el siguiente baremo económico: Detallado en el punto 7 del anexo.

Para contabilizar los ingresos económicos, el Ayuntamiento tendrá en cuenta todos los ingresos económicos anuales, todos los bienes muebles e inmuebles que se posean exceptuando la vivienda habitual, y el 50% de los ingresos que posean las personas ascendentes o descendientes de la unidad convivencial (abuelos/as, hijos/as).

Para poder acceder a dichas ayudas se deberá cumplir con los siguientes requisitos:

a) Que la persona solicitante tenga un empadronamiento mínimo de un año en Irura.

b) Que la factura esté a nombre de la persona solicitante.

c) Los señalados en el artículo 3 de la Ordenanza General.

*3. Presentación de solicitudes y documentación.*

Las personas interesadas deberán presentar la siguiente documentación:

a) Documentación general detallada en el artículo 5 de la Ordenanza Municipal reguladora de otorgamiento de ayudas económicas.

b) Certificado de inscripción emitido por el Ayuntamiento.

c) Documentos que acrediten los ingresos de la unidad convivencial (nóminas, pensiones, desempleo, declaración jurada, información fiscal y movimientos bancarios, si procede).

*4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.*

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*5. Onartuko ez direnak.*

a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.

b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

*6. Ebaluaketa eta onarpena.*

Eskaerak gizarte zerbitzuetako departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

*7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.*

a) Ur-kontsumoa: Gutxieneko kontsumorako diru-laguntza (gutxieneko kopurua urteko deialdian zehaztuko da):

| *Kideak* | *%75eko diru-laguntza* | *%30eko diru-laguntza* |
|---|---|---|
| 1 | LGS + %10 | LGS + %40 |
| 2 | LGS + %20 | LGS + %50 |
| 3 | LGS + %30 | LGS + %60 |
| 4 | LGS + %40 | LGS + %70 |
| 5 | LGS + %50 | LGS + %80 |
| 6 | LGS + %60 | LGS + %90 |

b) Zaborra:

| *Kideak* | *%90eko diru-laguntza* | *%50eko diru-laguntza* |
|---|---|---|
| 1 | LGS | LGS + %30 |
| 2 | LGS + %10 | LGS + %40 |
| 3 | LGS + %20 | LGS + %50 |
| 4 | LGS + %30 | LGS + %60 |
| 5 | LGS + %40 | LGS + %70 |
| 6 | LGS + %50 | LGS + %80 |

LGS (Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata): Urte bakoitzerako ofizialki onartutakoa.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du udalzergak ordaintzeko diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

*4. Plazo.*

El plazo para presentar las solicitudes y la correspondiente documentación se detallará en la convocatoria anual.

*5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes que se presenten fuera de plazo.

b) Las solicitudes que no cumplan lo exigido en el punto 2 de este anexo.

*6. Evaluación y concesión.*

Las solicitudes serán examinadas por el departamento de Servicios Sociales, elevando propuesta de concesión para su resolución.

*7. Cuantía y abono de la subvención.*

a) Consumo de agua: Subvención para el consumo mínimo que se detallará en la convocatoria anual:

| *Miembros* | *Subvencion del 75%* | *Subvencion del 30%* |
|---|---|---|
| 1 | SMI + 10% | SMI + 40% |
| 2 | SMI + 20% | SMI + 50% |
| 3 | SMI + 30% | SMI + 60% |
| 4 | SMI + 40% | SMI + 70% |
| 5 | SMI + 50% | SMI + 80% |
| 6 | SMI + 60% | SMI + 90% |

b) Basura:

| *Miembros* | *Subvencion del 90%* | *Subvencion del 50%* |
|---|---|---|
| 1 | LGS | SMI + 30% |
| 2 | SMI + 10% | SMI + 40% |
| 3 | SMI + 20% | SMI + 50% |
| 4 | SMI + 30% | SMI + 60% |
| 5 | SMI + 40% | SMI + 70% |
| 6 | SMI + 50% | SMI + 80% |

SMI (Salario Mínimo Interprofesional): Aprobado oficialmente cada año.

El Ayuntamiento de Irura contemplará en los presupuestos anuales la partida para abonar los impuestos municipales. Si en dicha partida presupuestaria no hubiera suficiente consignación para hacer frente a todas las solicitudes, las cantidades a percibir disminuirían en la correspondiente proporción.

VI. ERANSKINA
ANEXO VI

# ESKABIDEA
INSTANCIA

Eskatzailea

Solicitante ..................................................................

Helbidea

Domicilio ..................................................................

N.A.N.

D.N.I ...................................................... Tel............................

E-posta

E-mail ..................................................................

Azalpena

Concepto ..................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

(tokia eta data / lugar y fecha)

Sinadura / Firma

IRURAKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA

VII. ERANSKINA
ANEXO VII

Nik, ........................................................ .............................. N.A. duenak, deklaratzen dut ...................................... N.A. edo ................................................................ Udaleko diru-laguntza eskatzera, eta onuradun izateko betetzen dituda Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artiku ezarritako baldintzak.

..............................n, ............(e)ko .......

Sinadura

D/Dª ......................................................................., con D.. ......................................................................, en n ...........................................................F., y a los efectos de solici una subvención a este Ayuntamiento de Irun declaro bajo mi responsabilidad que reúno los requisitos para condición de beneficiario señalados en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En ............................ a .......... de ....................

Firma